



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 6a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Erosketa Publiko Berritzailea kontratatzeko eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Justizia Ministerioarekin Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatu dezan, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epaietako informazioa bideratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikuskapen-ekintzak bultzatu ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Konstituzio Auzitegiaren epaiarekiko arbuioa agertzen du, eta 8/2013 Foru Legea eta pertsona guztiak osasun publiko eta unibertsal izateko eskubidea defendatzeko bere konpromisoa berresten du. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako

foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2016ko irailaren 7ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erosketa Publiko Berritzailea kontratatze eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erosketa Publiko Berritzailea kontratatze eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erosketa Publiko Berritzailea kontratatze eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan, halako moldez non Nafarroa lizitazio mota horren abangoardian kokatuko baita Europa mailan."

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitearen aldeko ekimen eta mobilizazio guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu Gobernuak premiatzen du:

Bertan behera utz ditzan Espainiako armadak eta NATOk zenbait armadak Bardean egiten

dituzten maniobra militarrek eta bonbardaketak, "Ekaitz" izeneko operazioak barne direla.

Berehala desegin dezan Bardeako tiro-poligonoa.

Erabaki dezala Espainiako Estatuak NATOtik ateratzea eta atzerritar base militarrek erretiratzea.

Eztabaida politiko eta sozial bat ireki dezan egitura militar bat dagokion aurrekontuarekin mantentzearen egokitasunari eta premiari buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu Bardeako tiro-poligonoan 2016ko irailaren 27 eta 28an eginiko su errealeko maniobra militarrek, eta Estatuak gobernua premiatzen du Nafarroaren lurraldea ez dezan berriro erabil su errealeko gerra esperimentatzeko."

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Ministerioarekin Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatzean, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epailetako informazioa bideratzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Ministerioarekin Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatzean, langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia aitortzen duten lan arloko epailetako informazioa bideratzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaren hitzarmen bat sinatzean Espainiako Gobernuak Justizia Ministerioarekin, lan-arloan emandako epaiei buruzko informazio zehatza emateko bide aise bat taxutze aldera epai horiek langileen istripu edo gaixotasun baten lanbide-kontingentzia izaera aitortzen dutenean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du epai horien azterlan estatistiko bat egin dezanez, epai horiek neurri handi batean ukitzen dituzten sektoreak eta enpresak identifikatzeko dituen, egoera horiek zuzentzeko egokiak diren jarduketak gauzatzeko asmoz. Azterlan hori Justizia Ministerioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesaz edo erabil daitezkeen beste baliabide batzuen bidez egin behar da, epai guztiak jendaurrekoak direla kontuan hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezanez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren

laguntzaz. Bertan aztertuko da, zerbitzu horren arreta jasotzen duten pazienteei dagokienez, pertsona horiek langile dituzten enpresek kontratatutako mutualitateek zenbati eskaini dioten probak, diagnostikoak eta ebakuntza kirurgikoak aurreratzeko, osasun sistema publikoak eskaintzen dituen epeak azkartzeari begira. Azterlan horren helburua izanen da mutualitateek egindako eskaintza horren eta sistema publikora behar ez bezala egindako balizko bideratzeen artean egon daitekeen harremana ezartzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestakuntza-kanpaina egin dezanez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, oinarrizko eta espezialitateetako osasun-laguntzako medikuentzat, mediku horiek lagundu dezaten identifikatzen, beren ustez eta irizpide profesionalari jarraituta, jatorriz lanekoak diren patologiak tratatze aldera osasun sistema publikora jotzen duten pazienteak. Halaber, mediku horiei prestakuntza eman behar zaie, kontingentziari buruz duten iritzi profesionala adierazten duten txostenak zorroztasunez egin ditzaten eta zuzemen egokiak egin ditzaten bidezko erreklamazio-prozesuak ofizioz abiarazteko, pazienteei prozesu osoan lagunduta.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eska diezaien lanbide izaerako kontingentzien balorazio-irizpideak berrikusteko, arlo horretan galdu diren epaien kopuru handia ikusita."

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuguneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzuguneei eta gasolindegiei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikuskapen-ekintzak bultza ditzan, Foru Komunitateko zerbitzugune eta

gasolindegietan araudia betetzen dela egiaztatzeko, eta bereziki begira dezan betetzen dela gasolina eta gasolioaren hornidura zerbitzuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak arautzen dituen ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretuko 7. artikuluan xedatzen dena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikuskatze-ekintzak egin ondoren enpresei eska diezaien araudia betetzeko; eta, kasua bada, aipatu foru dekretuko 11. artikuluan aurreikusitako zehapenak jar ditzan”

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da igor dezala:

1. Hilero parlamentu-talde guztiei Osasun Departamentuko aginte-koadroei buruzko informazioa, giza baliabideen gaineko informazio xehakatuarekin (ekonomikoaz gain, langile-kopuruaren

gainekoa ere bai), datu errealekin eta itxiera-aurreikuspenarekin, laguntza-maila guztietako eta laguntza espezializatuko espezialitate guztietako laguntzari buruzko informazioarekin; bai jarduerari buruz (aurreko aldiekin konparatuta), bai itxarotzerrendei buruz. Halaber, informazio klinikoa emanen du, ospitalez ospitale adierazia, bai eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza guztien kudeaketari buruzko informazioa ere, erriaren arretarako unitatea, oinarritzko osasun-laguntza eta osasun mentala barne.

2. Hilero parlamentu-talde guztiei aginte-koadroa, programazio ekonomikoaren arloko itxieradatuarekin eta aurrekontu-erabilgarritasunekoekin”

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Konstituzio Auzitegiaren epaiarekiko arbuioa agertzen du, eta 8/2013 Foru Legea eta pertsona guztiek osasun publiko eta unibertsala izateko eskubidea defendatzeko bere konpromisoa berresten du.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko irailaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Konstituzio Auzitegiaren epaiarekiko arbuioa agertzen du, eta 8/2013 Foru Legea eta pertsona guztiek osasun publiko eta unibertsala izateko eskubidea defendatzeko bere konpromisoa berresten du.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du Konstituzio Auzitegiaren 2016ko uztailaren 21eko epaia, eta bere konpromisoa berresten du, defendatzekoa otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitaie Nafarroan bizi diren pertsonaei, eta pertsona guztiek osasun publiko eta

unibertsala izateko eskubidea. Era berean, adierazten du eskubide hori betetzea ezin dela egon ezin testuinguru ekonomikoren baldintzapean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriak onesten dituen apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua berehala indargabetu dezan eta inor bereizi ez dezan haren administrazio-, gizar- edo lan-egoeragatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inolako esku-sartzerik onar ez dezan eta Nafarroan bizi diren guztiei doako osasun-laguntza unibertsala bermatzen jarrai dezan.”

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Iñaki Iriarte López jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkez-

tutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

